



ZER
ALDIZKARIA

451. zenbakia
2018 IRAILA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

KATALUNIAKO AUZIA: Ibilbide historiko laburra (II)

Angel Larrea Beobide



**Sorne Untzueta
(Utarsus)**

Zenon Uriguen,
Pasiotarra

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2018-2019 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 51. IKASTAROA
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 15ean

**51. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 19 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350


Lege gordailua: BI-1452-85



KATALUNIAKO AUZIA: Ibilbide historiko laburra (II)

Angel Larrea Beobide

Karlos II erregea 1700. urtean, ondorengo zuzen edo seme barik il zanean, Austriako Etxea edo Dinastia kolokan jarri zan. Azken mende bietan Espainiako Erresuma gobernatzen egon zan familiak ezin eban Koroa mantendu beste kandidatu edo autagai bat egoalako. Olan, asi zan “Ondorengotza Gerra” (1701-1714) deitua. Kataluniarentzat, konflikto au aurreko atalean komentau genduana baino askoz larriagoa gertatu zan. Izan be, Katalunia eta antxinako Aragoi Koroako gaine-tiko erresumak, Austriar Etxeko autagaiaren alde jarri ziran. Aurrean, indar arerioak Borbon Etxeko printze autagai frantsesaren alde jarri ziran, bestek beste onako oneek: ispaniar lurraldeak eta Frantziako erresuma. Gatazkaren azken asaltoa Bartzelona urian gertau zan, 1714ko urtean, eta garaipena Borbon familiako Felipe V errege barriarena izan zan. Bartzelonako setioa irailaren edo urri lenengoaren 11an amaitu zan. Urtero egun orretan, “Diada” edo Kataluniako Egun Nazionala ospatuten da, Rafael Casanova buruzagi kataluniarra omentzeko.



F. Macià eta L. Companys, ERC-ren sortzaileak 1931an.




Porrotaren ondorio latzak bereala ikusi ziran: Bartzelonako etxeak ondatu egin ziran, bertako biztanleek euren eskuakaz etxe propioak austu bear izan ebezan irabazleek beartuta. Irabazleek ziudadela militarra eraigi eben (gaur, Ziudadela-ko Parkea da). Gotorlekua ez zan kendu Bartzelona moderna eraigi zan arte, 1859tik aurrera Ildefonso Cerdá arkitekto kataluniarraren Plana egiten asi arte. Plangintza orrek barriztu eban uria guztiz, Zabalgunean “Diagonal” edo “Rambla” izeneko kaleak sortuz (ikusi argazkian). Guzti au kataluniarren iniziatiba pribatutik finantziatu zan. Espainiar gobernuak ia ez eban dirurik ipini; oztopoak bai, ostera. Gerra irabazleek



beste gotorleku militar bat instalatu eban Montjuic-eko ganean, artilleria-gaz Bartzelona bonbardatzeko modukoa. Ori 1842ko eta 1843ko urteetan gertatu ziren, Espartero eta Prim jeneral liberalakaz. Baina neurririk gogorrenak 1716. urtean eldu ziran, gerrea amaitu eta urte bigarrean: Felipe V erregeak, errepresalia moduan, lurralde galtzaileetan bizi ziran guztien eskubide publikoen abolizioa dekretatu eban. Lege orreen bidez kataluniarren dokumentazio ofiziala gaztelaniaz -eta ez katalanaz- idatzita

agertu bear zan; eta Katalunian militar bat finkatu eban, erregearen konfiantzazko gizona, gobernadore karguz. Baina erregearen politika zentralizatzailea ez zan or amaitu. Gaztelako legeak jarri ziran bertakoen orde. Kataluniako unibertsidade geienak kendu egin ziran. Erakunde garrantzitsuak, Kataluniako Parlamentua eta bere Gobernua, "Generalitat" deitua ere kendu egin ziran. Ezin da aaztu Generalitateko presidentea Europako kargu politiko zarrenen artean dagoala, XIV. mendean sortu zalako.





Katalunia suminduta gelditu zan urrengo amarkadetan. Are geiago, kataluniarrak ia atzerritar edo kanpoztarrak balira moduan tratatuak izan ziran, Espainiar inperioko beste edozein biztanleren pare. ara emen kasu bat: kataluniarrek ezin eben komertziorik edo beste aktibidaderik egin kolonietan, Amerika deskubritu zantetik, 1492tik 1778ko urtera arte, Karlos IIIaren erregealdira arte. au da, ia 300 urtez egon ziran marjinetuta. XVIII. gizaldiaren azken amarkadetan asita, 1898ra arte Kuba, Puerto Rico eta Filipinak azken koloniak, galdu arte, kataluniarrek be izan eben aukera komertzioan egiteko eta ango lurraldeetan bizitzeko. Arlo sozio-ekonomikoan, aristokrazia kataluniarra be ia guztiz desagertu zan: batzuk erbestera joan ziran, exiliatuta, eta gaintekoek espainiar nobleziagaz bat egin eben. Beste alde batetik, burgesiak, klase sozial dinamikoa orduan, eta laborari ofiziodu-

nak aktibidade ekonomiko andia egin eben XVIII mendearen amaieran asita eta XIX. mendean zear. Garaiotan Katalunia Europa mediterraneoaren leen gizarte industriala biurtu zan. Transformazino edo aldaketa orretan ezin da aaztu bear Kataluniara ailegau ziran etorkinen parte-artze andia. Leen emigrante pobre orreek Frantziako egoaldeko okzitano izkuntza berba egiten ebenak izan ziran. Industrializazio prozesuan, ostera, azpimarratzekoa da eungintzaren sektorea, familia mailako eunak egiteko fabrika edo tailer ugari sortu ziran Bartzelonako Vallés izeneko eskualdean batez be.

XIX. mendearen erdialdean asita, “Renai-xença” mobimentu kulturala agertu zan, Erromantizismoaren esparrutik sortua, kultura eta izkuntza katalanak goratuteko eta bultzatuteko elburu ebal. Urrango amarkadetan milaka etorkin asi ziran eltzen Bartzelonara eta bere ingurura, asko espainiar lurralde txiroenetatik. Fenomeno migratzaile onek erreakzinoa eragin eban Kataluniako gizartean: nazionalismo kultural edo “katalanismo” ori nazionalismo politikoa biurtu zan. Burgesia katalana eragile izanik, aukera politiko progresistak (errepublikanismo eta federalismoa) eta kontserbadoreak (nazionalismoa eta erregionalismoa) praktikara eroan ebazan. Onen adibide da esate baterako, erregionalismo eskoitiarra “Lliga Regionalista” geroago “Lliga Catalana” izeneko alderdi politikoa eta bere liderra Francesc Cambó. Era berean, XIX. mendearen azken amarkadetan, beste ideologia politiko batzuk be agertu ziran Katalunian: sozialismoa eta, batez be, anarkismoa. Eta onekaz lotuta egozan sindikatu poteretsu bi onek: UGT sozialista eta CNT anarkista. Karlismoaren eragin politikoa, barriz,

mugatua izan zan. Arrakasta politikorik lortu ez arren, azpimarratzekoa da F. Pi i Margall politikoa katalana, bera izan zalako estatu mailan federalismoa aldarrikatu eban leena, au da, lurralde-antolamentuaren sistema federala. Polarizazioa gero eta andiagoa zan batez ere ekonomia arloan. Espainiako lurralde askoren atzerapenaren eta Kataluniako dinamismo sozio-ekonomiko eta kulturalaren artean sekulako aldea egoan.



BIZKAIKO ELEIZETAN GIPUZKERAZ?

Aspaldion abade giputzak eurrez ikusten dira Bizkaiko eleizetan egiten diran euskerazko mezak emoten. Ez dago bizkaitar abade naikorik, aurki. Ez dot ikusten, berez, orretan ezelango gauza txarrik.

Giputz berbea, geuretzako, ez da inoz erdeinuzkoa izan, ezta gitxiagorik be. Giputza, Gipuzkoakoa dana ezeze, gipuzkeraz darabilana be bada. Izatez, Gipuzkoako bizkaieradunak eurak be Gipuzkoako beste euskelduneri giputz esaten deutsee.




Kontua da, abade giputzok gipuzkeraz edota bizkaiereagaz naastean emoten dauena mezea Bizkaian, Bizkaiko erri euskeldunetan, eta Bizkaia Irratian be, Gipuzkoan bertan balegoz lez eta ez bertan. Gipuzkeraz entzutea ez da berez txarra edo kaltegarria, jakina, baia alan jokaturan geurea, bizkaieria, lotuten da ostuta edo bigarren mailakotzat, oindinokarren geiago. Eta azken au, Bizkaiko Eleizearen sasoi atako ebatziaren ostean, ez da azkenengo berrogei urteotan jaso. Eta, eritxiak eritxi, nik neuk ez deritxat ondo bertan bizkaiera utsean mezak ez izateari.

Oin dala urte mardoa, orduan be, Kardaberazek, Mogelek, Txomin Agirrek eta, ordukoak, beste era batera jokaturen euen: Bizkaira etorri eta bizkaieraz ekin Erriari, Gipuzkoara joan eta gipuzkeraz egin Erriari. Erria, entzuleak, kontuan eukiten euen.

Emoten dau, barriz, gaurko gipuzkoar abadeok kontu ori errotik aaztuta daukena. Izan be, bizkaierazko meza liburuak ganoraz irakurteko gauza ez dira, antza. Irakurgaietan, Elizen Arteko Biblia dalakoaren testuak dakarrez, geure berbakuntza erdutik asago. Berbaldietan, agoz, euren bein eta barrian entzun bear izaten dogu eta berbaldia idatzita dakarrenean, askotan, bizkaiera-gipuzkera naaste-borrastean irakurten deuskue. Emoten dau aalegin txikerrik be ez dauela egiten Erriari zor jakon zerbitzu linguistikoa ganoraz emoteko. Ez dot uste, berez, giputzak, beste euskeldunak baino kokoloagoak edota gauzaeztanak diranik, ezta bizkaieraz mezan berba egitea ain gatx egiten jakenik. Emoten deust, nagikeria, itxikeria dala geiago, ezjakinkeria baino. Agiriko da, bada, mezarako berbakuntza erdua ez dakarrena oso-osoan prepara, ezta be euren burua.

Adibide baterako, Bakioko San Pelaio eleizan, gaurko abadea Bermeoko frantziskotarra da, giputza. Eta abade au, Bermeon ezeze, Bermeoko auzo eleizetan ibiliko da an-or-emen mezak emoten, abade gitxi



dago-eta. Ba, mezako irakurgaiak gipuzkera-batuan irakurten deuskuez euskeraz ez dakien persona bik, eta beste guztiok, bertakoak izanda, a entzun bear, gura ta gura ez. Inoz bertan entzun bakoa! Berak sermoietan berea erabilten dau bein eta barrian, eta Erriak a entzun bear, aaleginak egin bear abadearena ulertuten. Eta badinot nik, ez da askozaz normalagoa eta zentzun andiagokoa abadeak berak beraren berbakerea geurera egokitutea, bestetara baino? Ez legoke azken au Eleizeak berak emon bearko leuskigun jainkozko zerbitzutik parajeago? (Vaticanoko II. Kontzilioaren espiritua)

Zer kostetan jake geurean bizkaieraz idatzitako Euskal Biblia (Jaime Kerexeta) edota Testamentu Barria (Lontzo Zugatzaga eta Jose Luis Goikoetxea) lango bizkaierazko testudun irakurgaiak mezetan erabiltea?


“Barkoxeko apezak oro dira manexak” (Etxahun-Barkoxe)

Aor itxiten dot!

Iniaki MARTIARTU

BAKIO

ILDAKOAK ERRAUSTU



Ildakoaren korputzak elizkizunez aparte azken berdiña ez dute izan beti. Eliz barruan lurperatzen ziran antziñan, pamili bakoitzak leku jakiña zeukan eta sepultura zeritzaion; an egingo ziran kandela jartzeak eta erresponsoak. Gogoan det, Berrobiko eliza berritzen auzolanean ibilli giñanean nola giza-ezurak aurkitu genitun. Gero etorri zan garaia eliz ondora aldatzea illerria, estalpe orri "Zimitoria deritzaio eta "Cementerio"tik etorriko da nik uste. Oraindik Iparraldean, kanpo librean baiño eliz ondoan dauzkate illerriak.

Gero etorri zan beste garai bat gure ontan, eliz ondotik urrutiratzekoa illerriak eta orduan asiko ziran aberatsak beurentzat arrizko sepulturak egiten eta beartsuak lurperatzen,

Orain indartzen ari dan beste oitura bat, orretarako dagon labe baten korputza erretzea eta auts oiek ildakoak nai zun leku batean zabaltzea. Orrela ikusiko ditugu mendian, itsasoan eta abar, auts oriek zabaltzen.

Zer geiago esan? Elizak ere ontzat artua dauka jokabide ori eta bakoitzak erabaki dezala zer egin. Anima joan dedilla zerura eta korputz ori "Illetak".

GURE ILDAKOAK


Bildu dedilla animarekin Josafateko zelaian. Guri ala erakutsi ziguten beirrtzat.

Bizidunak eriotzaz
pagatzen du zorra,
baiña anima ori
degu illezkorra.
Zeruan desioa
danok degu orra;
arren lagun zaiguzu
Jaun errukiorra.

Elizan aldaketa asko izan da zorionez, baiña jatorrenetako bat, illeta edo "entierrotan" egin dana. Iru illeta mota ezagutu genitun guk erderazko izenez: "Primera", "Segunda" eta "Tercera", Jakiña, dirudunak edo etxe onekoak "Primera" edo "Segunda" izango zuten eta gaiñontzean "Tercera". Dirurik etzutela-ko illetarik egin gabe illerrira korputza eramaten ikusiak gaude.

Lenengo maillako orretan amar edo amabi apaiz izango ziran, bigarrengean, zortzi edo amar, eta irugarrengean, bost

edo sei. Bazirudin Jaungoikoa eta zerua diruz erosten zirala. Orduak ere bazuten zer ikusia, irugarren maillako oiek etzaukaten goizeko 10'tan izaterik adibidez. Ezagutu nun gure aitona zan bat, goizeko 9'tan izan zan aren illeta, naiz pamilikoak 10'tan nai zuten. Elizako aldare guztitan mezak emango zituzten apaiz Oiek eta gero korurako igoko ziran aldarean meza nagusikoak gelditzen ziralarik. Ipui bezela au esaten zan etxe onekoa baldin bazan: "Gaur kantatuko ditek, onek badik onek badik".



Elizatik erten da bazkari ederra ematen zitzaien apaiz oieri eta gaiñontzeko parientiari eta antxe juerga ederrean danak, musean egiñez eta abar, pamilikoak negar malkotan zauden bitartean. Pariente oieri geienetan basarrian ematen zitzaien bazkaria eta oillategiak artzen zuten jipoi ederra.

Ori norbait iltzen zanean, eta urtebetera beste ainbeste egin bear izaten zan. Gaur zorionez, beste gizalege bat ikusten degu eta alaxe bear ere. Jaungoikoaren aurrerako beartsu bat ez ote leike izan aundiagoa zenbait aberats baiño? Edo aberatsak premi geiago zeukatela-ko egiten ote zitzaizkien lenengo maillako illetak?

Txomin Garmendia

Ildakoa diruduna bazan
ematen ziran urratsak,
eliz-puntzio bikaiñak eta
Ondoren EGUN-PASAK.
Nolaz ixildu garai artako
apaiz askoren akatsak?
Beartsun alde sermoiak egin
gero maite aberatsak.





Sorne Untzuetak (Utarsus)

Zenon Uriguen, Pasiotarra

SORNE, SORRERA, SORKUNDE.

Berba aberatsak dituzu biziaren itxaopenez jantziak. Ez dago etorkizunik sorkunde barik. Baña bizi asieran ez gara egiñak. Egiñez-eginez goaz bizitzagaz batera. Egunetik egunera, egite onakaz jantziz jantziz landarea zugatz aundi ta zabal bat egiten dan lez. Gure bizitzako elburu nagusia goi-goraño egite onez loratzea da. Auxe da Sorne Untzuetak emoten dauskun ikasbidea.

Jaiotza ta gaztaroa:

Jakingarria da neska gazte onen jaiotza. Bilbon, Abandon, 1900 urtean. Sei-zazpi urtekin jakin-min bizia dauko. Bere ikasteetan asmorik goragarrienak ditu. Abandon bizi da Sabino Arana. Sabinoren gogo eta ekintza beti izan zan eraginkorra: Euskadi ta euskera. Euskadi barri bat egin eta eragin, eta euskera jatorra lau aizetara zabaldu. Sornek Sabinoren ikasle zintzoa izatea nai dau. Esan ta egin. 16 urtegaz, irakasle izateko ikasteak amaiturik Andereño izango da. Nun? Foru aldundiak jarritako Ikastoletan: Errigoiti, Plentzia, Lemoa eta Berangon. Bai, bere ekintza zintzoa umeei euskera erakustea da. Euskera gaietan goren izateko Kirikiño maixuaz irakasle jatorra izateko ikasteak egin ditu. Sornerentzat Kirikiñoren euskera errikoa, argia ta garbia ikasbide oberena da.



Idazlari Joria.


Sorne Untzuetan euskal idazle eta olerkaria da prosaz eta bertsoz. Lauaxeta olerkari gurenak sarri goratu eban euskal emakumea. Eder ikusten zituan euskal alabak euskeraz idazten. Sornek etorkizun eragiña biztutzeko eta emakumeak euskera zaletasunean bizkortzeko idazten dau “Itxartu Eusko Alaba” gerra aurretik egindako poemak amabi(12)dira. Jaungoikoa eta aberria gorengo maillan jartzen ditu. Gerratean anka egin eban Frantziara, 1937-1953. Emendik idazten dau Euzko Gogoan,

Euzko Deian. Baita poema bat Artxanda izenagaz Euskera eta Aberria goratuz. Gizona egiñetatik ezagutzen da. Sorne bere idazlan-bertsoetan dogu ezaguna. “Nork biztu dau gure maitasuna euskera geuregeurea dana, euskaldun odol bizi-biziak izan ezik, geure-geureak diran gauzak goratu ta aldeztutzeko”? (Sorne). Sorne idazlariak aipamen eta omen gorena merezi dau, Euskadi osoan, euskera zaletasuna ta bere euskal ekintza guztiak txalotuz.


*“Izan zirelako gara,
garalako izango dira”*



EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (X.)



2. ZATIAN.



Sarreratik datorrena.

Oar txiki bat.

Erri legean, edo demokrazian sartuta gagozela esaten dabe batzuk, baiña sekula ez gara aukera orreitan ezarriko, antziñatik etorren dan norkeriaren zentzuzko maltzuratasunean geiegi kokatuta gagozanen artean.

Laster izan bear dana, Jainkoaren Lege aurrean, txarto egi ten doguzan gauza guztiagaitik mugatuta egonda, premiazko larritasun oneri irtenbide bat emon bearrean gagozelako.

Euskaldunak, ez doguz galdu bear aurkezten jakuzan aukera oneik, gure nortasunezko eta orde zko ardurak berreskuratu gura ba doguz.

Orretarako baiña, euskalerriren askatasunezko elburuari danok batera begitu bear dautsagu, nai ta politikaren ezberdintasun talde-kideetan lan egin.

Beti, lelokeri barik, eta buru belarri sartutako ekintzan, gure arbasoek emon euskuen **Lege Za-**

rraren edo erri legezko⁽¹⁾ zentzuaren ardurean lan eginda, espainolaren menperatasunezko eragipenetik urten gura ba dogu (*len bait len izan bear dauana*).

Orregaitik salatu bear dogu emen, zergaitik ez garan munduko gizatasunaren etorki edo guraso ondokoak.

Oraiñ, au da emen galdetu bear doguna: Zergaitik, Santimamiñe, Ekain eta Altzarri'ko arzulo edo leize zuloetan marraztuta agertu diran irudiak **Munduko Gizatasunaren ondorekuak izendatu**, eta izkuntz guztien artean zaar eta ederrena dana, baita gaiñera mintzatzeko berbearen leengo itz otsak eta berbearen irudimendutasunak ulertzeko euskeratik argitu leikezanen artean garrantzi aundienekoa izan da **euskerea, zergaitik gizatasunaren ondorekua izendatu ez ?**.

Legeak.

Ludi onetako gizaren edestiari, ezeren antolamendu barik begitu ezkerro, luzeegi, illun edo ta urrun agertzen jakuz gure irudimenetan bere gertakizunak, baiña gure antzera,

(1) Erri-legezko = Demokrazia.



ikertzailetasunezko begiakin begitu ezker, oso urbil agertzen jakuz beren garrantzientariko zati edo gertae-rak, jarraian gure doguzan edozein ondorioak argitzeko.

Orregaitik Omosapienseko arbasoek, Paleolitiko-Neolitiko aldiak amaitu orduko, lortuta euki bear izan eben gizarteko bardintasunak, eta Eneolitiko aldi-tan agertu orduko, guztiz egokituta askatasunaren de-mokrazizko ekanduan.

- Bestela, gaurko euskaldunen baitak ez eban eukin-go ekanduzko indarrak, edestian zear euki dauan eta gaur egun daukagun katoliko aberkuntz men-paratzaillaren zapalckerazko alegiñetatik urteteko.
- Euskaldunak, ez gendulako ain sakon eukingo, daukaguzan askatasunezko demokraziaren ega-riak, eurak ainbeste milla urtetan, demokraziaren ekanduzko oituran ez ba ziran bizi.

Leñuaren lurraldeko ardurean bizi ziran euren erri-gizartearen antolakuntzan, gure denboretaraiño eldu dana.

Bestela ez da ikusi baiño bear, gaur zer direzan Biz-kaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Lapurdi eta Ziberota-rrak, gure Euskalerrri onetan, eta zer zan Europa barruan Griegoaren antolakuntza, jaurkintzazko politikan sekula

ez ebelako euren urietatik kanpo urten, arik eta domukeriaren⁽¹⁾ menperatzai-lletasunezko ekintzak asi arte.

Europa osoa egon zan demokra-zizko itxura orreitan antolatuta, euren leiñuzko batzordearen babespean.

Euren ardurak zaintzeko, geiago bear ote eben ?.

Gaiezko mundu oneitan, iñor ez da nor, legeak, norberen gogoko buru-tasunaren irudimenetik sortzen diran lez legeztuteko.

Zergaitik ?.

Mundu onen len gaia eta gurea, lege bardiñean eginda dagozan lez, eta gure oiñarrizko sustraiak bere lege gaian erperatuta dagozelako, izaeraz-ko egokitasun orreik dira guri debe-katzen dauskuenak, lege arloetan nai doguna edo gure naia egiten.

Orregaitik, guk edozein gauzata-rako egiten doguzan legeak, bereztu-tako Izadi onek erperatuta daukazan

(1) *Domu* = capital. *Domukeria* = capitalización excesiva, usura.

egizko legeditik bakandu edo argira atarata, bakarrik legeztu geinkez.

Gure Kromañon arbasoek ainbeste milla urteko ikas biritan ondo baiño obeto ulertu eben berezko legetik kanpo ezin zitekela bizi, eta oso osoan artu eta oituratu ebazan ikasgai guzti orreik *Euskalerriko Lege Zarra-
ren bidetik*.

Euren senidetasunezko izkuntzagaz, erlijio ta legearekin, aberri batekoak lez senditzen ziran ?.

Orduko Mundu ezagun guzti oneitan, aberkuntzaren burutapenik⁽¹⁾ ez zalako egon, euren lurraldeko leiñu batzarrakaz, eta leiñu orreik euren auzotasunean euki ebezan izkuntz bateko batzar nagusien elkertasunean⁽²⁾, antolamenduta bizi ziran.

Zer guranai dau esan, egokitasun orrek ?.

Aberritasunezko itza oraindiño agertu barik egon arren, izkuntz batekoak izanda, ta leiñu bakotzaren nortasunagaitik, euskalki antzekoetan zabaldua egon, baita sinismenean, odol, eta oitura batekoak izanda, senidetasunaren sendimenduzko arremarik ez ebela eukingo ?.

Orduko Europaren Euskalerrria zabala izan arren, borrokak

(1) *Aberkuntzaren burutapenik = no se conocia la palabra o acepción de NACIÓN.*


(2) *Elkartasun = o anficionia = a modo de las confederaciones de las antiguas ciudades griegas.*


baiño geiago, artu emon onak euki bear ebezan, bestela ez eben lortuko, azturazko bidetik lortu eben izkuntza ta gitxiago, ekanduzko demokraziagaz lortu eben jendekuntzazko garaipen eder orreik, gaurko egunetan gu, ain sinismen sendokoak izateko.

Baiña geroago ikusiko dogun lez, ordezkari-tzaren zentzuzko ardura demokratiko orreitan, ain sendo oiñarrituta eta euki eben antolamenduagaz, auzotasunaren laterrizko egokitasunean ondo kokatuta egon arren, baten bat agertu bear zan garbitasun orreik lokaztuteko, eta agertu be ei ziran, beti sasijainkotasunaren mozorrotasunagaz.

Mozorrotuta agertu ziran batzangotasunaren za-leentzat edo ta menperatzaille asmakuntzazkorentzat euren *veni, vidi, vinci'gaz*, denbora baiño besterik ez eben bear, euren naaslarritasunezko guzur eta bakaltzale sakratuaren⁽¹⁾ ziri bidetik, gure artean siñistu ezin diran okerkuntzazko alderdikeri ta maltzurtasunezko ondorio ganorabakoetan ezarri edo kokatu gaitezkan, euren mendeko garaipenak lortzeko.

(1) *Bakaltzaille-sakratuaren = absolutismo-sacramental.*





Eta jarkera orreitan edo menperatzailletasunezko jarkera orreitan gagoz gaur be.

Baiña, betiko menperatzaillearen arrazoibageko edo maltzurrezko esanari aurrera urtenda: Euskalerrria, Mundu ta Europa onen *erria dala* esan bear jakie, gaiñera, *garrantsienetariko* bat, oraindiño beragan geratzen diralako milla urte askotan ikasita, *berexotasunezko legearen ulermenak*.

Nun, edo nungo zabaltasunean bizi ziran Euskaldunak, Paleolitiko Neolitiko eta Eneolitiko aldian ?.

Omosapiensek goian esan dogun lez, Afrikatik urten ebenean, Europa eta Asiatik zabaldu zan euskeraren aurreko itz-ots edo leen euskerazko izkuntz ta oitura bardiñekin, gero ikusiko dogun lez, toki izenak alan esaten dabelako.

Eta gaurko Euskerazko azturan, Atlant-itsasotik Alemaniaren erdi-raiño, eta Eskoziaren erditik Kadi-zeraíño.

Orduan ezagutzen zan demokrazizko jendekuntza mundu osoarena izan arren, esan dogun azkeneko

lurralde zabal oneitan sendotu ziran euskaldunak izan zirala, gaur arte ekarri dabezanak euskal izkuntz eta askatasunezko demokraziaren zentzu eder oneik.

Jakintsuen esanetan, ori da: Aurreko jendekuntz galdua dana ?.

Ori esaten dabe, eta ainbesteko nabaritasunagaz gogoratzeko, Europako euskal arbasoen usaiñagaz lortu eben jendekuntz ori, ederra eta sendoa izan bear zan, bestela ez eban eukingo gaur egunetan oraindiño daukan ainbesteko gogorapenik.

Eta gitxiago, orain argituko dodazan toki-izenetan, ainbeste euskal-eragipeneko ugaritasunik.


Mundu zabalean, Euskal toki izenak eta itzak.

Toki izenaren⁽¹⁾ zentzua ulertzeko, gure gogarketetan garrantzi aundian euki bear doguna auxeda: *Izen jeografriko batek asieratik gaur arte iraun dagian, izen ori errotsu, sendo edo ta ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan*, eta ori ez da lortzen, toki orreitan izen orreik milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

Euskereak, Beko-Paleolitikotik asi ta gaur arte ikutubako berbak daukaz, Asia ta Afrikako leen gizarteak euren errekarri eta abar emon eutsezan izenak: Ibai-rio, Ibi-vado, Ibar-valle eta abar. Eufrates ibaia bera deitzen zan buranu = urnammu, zeru guztia ura izan zala gogoratzen ziralako: *ura = ur+anu = agua del cielo*.

Atutxa'tar Paul



Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an



(1) Toki-izenaren=topònimos.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Itsasontzi baten
Euskalerritik kanpora
naramate eta ez dakit nora. (bis)
Agur nere ama
laztan goxoari
agur nere maite politari
ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari

Lekeitio